



**EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 28koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena; honen bidez, hautatutako pertsonen behin-behineko zerrendak argitara ematen dira, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere, hautaketa-prozesuetan (Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deituak)**

---

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren 11.3 oinarrian ezarritakoarekin bat etorriz (agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere, hautaketa-prozesuak deitu ziren), honako hau,

## EBAZTEN DUT

**Lehenengoa.-** Argitara ematea hautatutako pertsonen behin-behineko zerrendak, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere, hautaketa-prozesuetan (Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deituak)

**Bigarrena.-** Hautatutako pertsonen behin-behineko zerrendak argitaratuko dira hemen:

[\*\*Hirugarrena.\*\* – Hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren, eskatutako dokumentazioa aurkezten ez dutenek, edo, hura aztertuta, deialdiaren 2. oinarrian adierazitako baldintzaren bat betetzen ez dutela ondorioztatzen bada, karrerako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak galduko dituzte, hargatik eragotzi gabe hasierako eskaera faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizuna. Era berean, eskubide guztiak galduko dituzte azterketa medikoan ezgaitzat jotzen direnek. Kasu horietan, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak dagokion ebazpena emango du karrerako funtzionario izendatzeko eskubideak galdu direla adierazteko.](https://hezigunea.euskadi.eus/(«Erabiltzailea (NAN/AIZ )» eta «Pasahitza» sartuz) - «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2022ko EPE. Irakasleak. Egonkortzeko / ohiko lehiaketa-oposizioa» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – adierazi kidegoa eta espezialitatea – «Hautespen Batzorde» – «Aukeratze araberako zerrenda»/«Deituren araberako zerrenda»/«Puntuazio araberako zerrenda» (hautatuak «Esleipena» zutabeen «2HE/HE2» edo «1HE/HE1» agertzen direnak dira, kasuaren arabera).</a></p></div><div data-bbox=)

**Laugarrena.-** Martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuan edo uztailaren 23ko 182/2002 Dekretuan aurreikusitako kasuetan dauden hautatuak 3 urteko epea izango dute, karrerako funtzionario gisa lanpostuaz jabetzen direnetik, dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko. Beraz, karrerako funtzionario izendatzeko, deialdian ezarritako hizkuntza-eskakizunaren eskakizuna egiaztatu beharko da, adierazitako epean. Hori egiaztatzen ez badu, adierazitako izendapenak ondoriorik gabe geratuko dira.

**Bosgarrena.** – Egonkortzeko oposizio-lehiaketan eta ohiko lehiaketa-oposizioan espezialitate eta kidego berean hautatuak izateko aukera dutenak, egonkortzeko oposizio-lehiaketan soilik hautatuak izango dira, Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren 11.5 oinarriaren 2. paragrafoa aplikatuz.



**Seigarrena.** – Hautatutako pertsonen behin-behineko zerrenden aurka, interesdunek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute zerrenda horietan egon litezkeen akatsengatik, bost egun balioduneko epean, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Erreklamazioak helbide hauetan aurkeztuko dira: <https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea (NAN/AIZ )» eta «Pasahitza» sartu beharko dira) - «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2022 EPE. Irakasleak. Egonkortzeko / ohiko lehiaketa-oposizioa» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – adierazi kidegoa eta espezialitatea – «Hautespen Batzorde» – «Erreklamazioak», helbide horretan eskuragarri dagoen «Erreklamazio-orria» eredu batzuz.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 28a

Langileriaren Kudeaketa zuzendaria,

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO